

Amurrio, 2021eko maiatzaren 26a

# **EAJ-PNV                      Amurriok                      Eusko Jaurlaritzako              Hezkuntza              Sailak Zabaleko eskola publikoa      zabalik mantentzeko              hartutako              erabakia ospatu du**

- ***Txerra Molinuevo** alkate jeltzaleak Hezkuntza Saileko arduradun nagusiekin azken astean egin duen lan etengabe eta diskretuari esker lortu da*

Amurrioko Eusko Alderdi Jeltzaleak publikoki aitortu nahi du Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak, gaur goizean, Amurrioko Udalarri **Zabaleko** ikastetxea irekita mantentzeko helarazi dion erabakia. Zalantzarik gabe, albiste bikaina da amurriarrentzat; izan ere, horrela, udalerriko erreferentziazko hezkuntza-zentroetako baten jarraipena bermatzen da San Jose auzoan.

**Txerra Molinuevo** alkatearen eta **Jokin Bildarratz** sailburuaren arteko elkarriketa diskretuaren ostean egin du Hezkuntza Sailak agiri ofizial hau. Izan ere, joan den astean udalerrian Zabaleko eta Mendiko ikastegien arteko bat-egiteari buruzko iruzkinak sortzen hasi zirenetik, askotan jarri da alkatea Bildarratzekin berarekin harremanetan, hezkuntza-komunitatea osatzen duten familien ezinegona azaltzeko.

Era berean, lehenengo egunetik, EAJ-PNVren gobernu-taldea, alkatearen bitartez, harremanetan egon da ikastetxeko Guraso Elkartearekin, ahalik eta babes handiena helarazteko.

### **Ikastetxe publikoekiko konpromisoa**

Jeltzaleen alkatetzak beti adierazi die babesa udalerriko ikastetxe publikoei, eta, horren erakusgarri, duela aste batzuk iragarri zuten 100.000 euroko erreserba egingo zutela udal aurrekontuan, Zabaleko eta Mendiko zentro publikoetan hobekuntzak egin ahal izateko. Zehazki, 50.000 euro bideratuko dira bakoitzarentzat. Zabalekoren kasuan, Molinuevo alkateak iragarri du gurgil-aulkientzako plataforma jasotzaile bat jartzeko erabiliko dutela, zentroko solairuen arteko komunikazioa bermatzeko.

Horregatik guztiagatik, "Amurrioko Udal Batzarretik ospatzen dugu Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak Zabaleko ikastetxea datozen ikasturteetan bere ohiko jarduerarekin mantentzeko hartu duen erabakia, bai eta Jokin Bildarratz sailburuak berak gai hori bere gain hartu duen enpatia ere. Era berean, Txerra Molinuevo alkateak gai honen inguruan egin duen lana aitortu nahiko genuke; izan ere, Batzarrak hasiera-hasieratik babesa eman dio eta beharrezko laguntza guztia eskaini dio".